



Arratia

"BIDEAN GAGOZ"

8. zk.

2 0 0 7

apirila

TOKIKO AGENDA 21aren gaineko informazio aldizkaria



Arratia



Arratiako iraunkortasunari buruzko II. jardunaldiak

Klima Aldaketaren inguruan hainbat ikuspuntutik arituko dira

Igorreko kultur etxean garatuko da Arratiako iraunkortasunari buruzko jardunaldien 2. ekinaldia maiatzaren 5, 6, 7, 8 eta 9an. 2007ko jardunaldi hauek Klima Aldaketaren arazo larria landuko dute eta Al Gore-ren "Una ver-

dad incómoda" Oskardun dokumentalarekin hasiko dira. Gaiaren inguruko adituen ikuspuntua jasotzeaz gain, Klima Aldaketaren eragile nagusiak eta bere eraginak aritzeko moduak ere aztertuko dira egun hauetan.

AGENDA

Maiatzak 5 eta 6 larunbata eta igandea KLIMA ALDAKETA

• 2007. urteko Oskarretan 2 sari irabazi dituen "UNA VERDAD INCÓMODA" dokumentalaren emanaldia. Al Gore, Estatu Batuetako lehen-dakariordea izandakoak klima aldaketa planetan izaten ari den ondorioen argazki kezkgarri bat azalduko digu. Lekua: Igorreko Kultur Etxea. Ordutegia: Larunbatean 18:00; Igandean, 20:00etan. Oharra: Saiok doan izango dira.

Maiatzak 7, astelehena KLIMA ALDAKETARI BURUZKO HAUSNARKETA.

- 18:45: Jardunaldien aurkezpena.
- 19:00: Klima aldaketaren Euskal Bulegoa.
- 19:20: WWF-adena.
- 19:40: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 20:00: Mahai ingurua. Norberak lekarkeena.

Maiatzak 8, asteartea ENERGIA ETA KLIMA ALDAKETA

- 18:45: Saioarean aurkezpena.
- 19:00: Energia berritzagarriak eta dirulaguntzak. EVE.
- 19:30: Eraginkortasun energetikoa etxebizitzetan eta garraioan. CADEM (EVE).
- 20:00: Balmasedako eredu. Tokiko Agenda 21 Teknikaria.
- 20:30: Mahai borobila. Norberak lekarkeena.

Maiatzak 9, asteazkena MUGIKORTASUNA ETA KLIMA ALDAKETA.

- 18:45: Saioarean aurkezpena.
- 19:00: Mugikortasun iraunkorra. Gaiari aditu batek.
- 19:30: Arratiako esperientzia. Arratiako Udalen Mankomunitatea.
- 20:00: Arrasateko esperientzia. Ecodriving. Arrasateko Udala.
- 20:30: Mahai ingurua. Norberak lekarkeena.



Tokiko Agenda 21en 2007ko ekintza eta jarduerak Arratiako herrien Tokiko Agenda 21etan aurrerapausuak ematen jarraitzen dugu

Arratiako herrietako Agenda 21ak herri bakoitzeko Tokiko Ekintza Planetan zehaztuta daude. Plan hauetan jasotzen dira herri bakoitzaren helburuak eta horiek lortzeko egin beharreko ekintza eta jarduerak. Hau guztia Arratia iraunkorrako bati begira egiten da beti ere.

Herri bakoitza ahal duen neurrian dagozkion ekintzak garatzen saiatzen bada ere, bestelako erakundeen lankidetzak beharrezkoa da askotan, hurrengo lerroetan ikusiko duzun moduan.

Aldundiaren laguntzei esker finantziatutako jarduerak

Dirulaguntza programa garrantzitsuen artean Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen sailak eskeinitakoak azpimarratu behar dira. Bertan aurrekontu garrantzitsu bat erabiltzen baita espreski Tokiko Agenda 21etako Ekintza Planen ekintzak garatzeko.

2007an honelako laguntzekin finantziatu diren ekintzak dira:

- Oiakorbeko hiri ingurunean asialdirako guneen urbanizazio lanak, hirigunearekiko lotura barne (Arantzazu).
- Kaleko argien kontsumoa gutxitzeko, segurtasuna bermatzeko eta argiaren kalitatea hobetzeko proiektua. Itzalaldien kasuetan argiztatzeko sistema autonomoa jartzen da martxan (Areatza).
- Artea eta Areatza lotzen dituen oinezkoentzako eta ziklistentzako espaloi bat eraikitzea (Artea).
- Eguzki instalakuntza fotovoltaikoa pilotalekuan, eguzki panelek 200 m² baino gehiago hartzen dute (Bedia).
- Olabarriko errota ingurua oinezkoentzako prestatu da (Igorre).
- Ibaizabal ibai gaineko pasadizoa



Artea



Bedia



Igorre



Dima



Areatza



Zeanuri



Lemoa



Arantzazu

egitea. Pasadizoa oinezkoentzako eta ziklistentzako da (Lemoa).

Eusko Jaurlaritzak finantziatutako jarduerak

Ekintza planetan jasota dauden beste proiektu batzuek Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen sailak ordaindu ditu.

- Arratia ibaiaren eskubialdea berreskuratzea Olabarritik hasi eta Arantzazurekiko muga arte. Bertan landaredia berreskuratzea, erribera bideak egin da eta ibaieraren ekosistemaren gaineko informazio panelak kokatu dira (Igorre).
- Herriaren bost lekutan bizikleta-aparkalekuak jarri dira (Areatza)

Aurreikusitako beste proiektu batzuk

Epe motz zein ertainerako badira beste proiektu batzuek eta hauek ere gure herriak erosoagoak, osasuntsuagoak eta iraunkorragoak izatea dute helburu nagusitatzeko.

5kWko Eguzki plaka fotovoltaikoen instalakuntza udal eraikuntzetan Energiaren Euskal Erakundea (EEE)ren eskutik:

- Dimako eskolak.
- Zeanuriko eskolak.
- Igorreko Udala eta eskolak.
- Areatzako Udala eta pilotalekua.
- Arteako pilotalekua.
- Arantzazuko pilotalekua.

- Enparantza nagusiaren peatonalizazioa (Dima).
- Autoa konpartitzeko aukera udal web orrialdearen bitartez (Areatza).
- Hirigunearen peatonalizazioa (Artea).
- Arratiako bidegorria egiten hastea.
- Mugikortasun plana (Bedia).
- Beste batzuek...

Komunikazio, Sentsibilizazio eta Parte-hartze plana

Beste urtetan egin den moduan aurten ere osatu da 2007ko Komunikazio, Sentsibilizazio eta Parte-hartze plana hainbat helbururekin. Besteak beste, ekintza planen garapenean dabilzan erakundeen parte hartze bideak hobetzeko eta beraien koordinazioa eta lankidetzak bermatzeko asmoa du plan honek.

Arratiako Tokiko Agenda 21en gaineko web orrialde berria aipatu behar da hemen, baita tresna ezberdinen bitartez egiten den sentsibilizazio lana ere: ARRATIA 21 aldizkaria, Egun berdeak, Europako Mugikortasun iraunkorraren astea...

Hau guztia guztion ahalegin eta lankidetzari esker gauzatu da: arduradun politikoak, udal teknikariak, herritarrak, gizarte eta ekonomi eragileak...

Garbigune berria Igorren Arratiako eskualdearentzat

Arratiako eskualde osoari zerbitzua emango dion Igorreko Garbigunea ireki zen joan den martxoaren 19an. Garbigunearen funtzio nagusietako bat, kontrolrik gabeko hondakin-botatzeak gelditzea da. Hau da, obretako hondakinak, bolumen handiko hondakinak eta dagoeneko antolatuta dauden bilketetan lekurik ez duten materialen botatzeak ekiditea, zabor horiek guztiak jasoko dituen gunera prestatuz. Garbigunean zaborrak baimendutako profesionalak tratatzen dituzte, zerbitzuaren kudeaketa zuzena ziurtatuz. Hain zuzen ere, Garbigunean utzitako hondakin guztiak birziklatu edota berrerabiltzen dira.

Igorreko Garbigunearen ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 09:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 18:30etara
Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara.

Garbigunean utzi daitezkeen hondakinak

- BIZIGABEAK: obretako hondakinak, lurrak, kristalak...
- GAI METALIKOAK: berogailuak, bizikletak, eserlekuak, bainuontziak...
- EGURRA: armairuak, eserlekuak, kaxak, oholak...
- PAPERERA ETA KARTOIA: Kartoiak, egunkariak, aldizkariak, iragarkiak, karpetak...
- PLASTIKOAK: Pertsianak, plastikokoak, jostailuak, eserlekuak...
- ONTZIAK: plastikozko ontziak, metalezkoak eta brick-ak.
- BEIRA: Botilak eta poteak.
- AKUMULADORE eta bateriak.
- LOREZAINZTA: inausketa hondakinak.
- OLIOAK: karterrekoak eta etxekoak.



Garbiguneak behar bezala funtzionatzeko zure languntza beharrezkoa da, errespetatu itzazu ordutegia eta egoki erabiltzeko arauak. Ez utzi zure hondakinak sarreran behar den, tokian baizik.

- LERRO ZURIA: Elektrogailuak.
- LERRO MARROIA: Telebistak, musika ekipak eta ordenagailuak.
- FLUORESZENTEAK.
- NEUMATIKOAK, TONERRAK eta tinta kartutxoak.
- PATRIKAKO TELEFONOAK.
- CDak eta DVDak.
- BESTE BATZUK: Koltxoiak, somierrak, moketak...

Arantzazu Udalsarea 21era sartu da

Joan den otsailaren 22an, Eusko Jaurlaritzaren lehendakariaren egindako ekitaldian sartu zen Arantzazu Udalsarea 21 iraunkortasunarako udalherrien euskal sarera, beste 36 herrirekin batera. Bertan ziren, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria eta Esther Larrañaga Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde antolamendu sailako kontseilaria. Ekitaldian Tokiko Agenda 21ean egindako lanaren aitortpen gisa diplomak banatu ziren.

Era honetan, Arantzazuk 2005ean Udalsarea 21era sartutako Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanurirekin bat egingo du udalherri iraunkorrerako lortzeko bidean.



Gogoratu Udalsarea 21...

Udalerriek Tokiko Agenda 21aren ezarpena errazteko sortu zela. Aurreneko fase batean, Tokiko Agenda 21aren tajuketa egin behar da, hau da, herriaren diagnostikoa egin, herritarren parte hartzerako bideak jarri eta Tokiko Ekintza Plana idatzi behar da. Ondoren bai, herria Udalsarea 21ean barneratzen da aurrez diseinatutako ekintza plana gauzatzen joateko.

Martxoaren 22a, Uraren Munduko Eguna Zentzuz kontsumitu!

1993an Nazio Batuetako Batzar Nagusiak erabaki zuen Uraren Munduko Eguna egingo zela ordutik aurrera martxoaren 22an. Arratian aurten egun hau eurite eta elurte egin berriekin ospatu dugu eta honi esker gure urtegiak bere onera etortzen hasi dira. Hala ere, ezin dugu ahaztu kezka garria den datu bat: gure urtegiak neguan bere mailaren %38 an egon dira.

Ura bizitzaren eta gure gorputzen motorea dela kontuan hartuta, eskuartearen ditugun natura baliabideetan garrantzitsunetako delat onartu beharko genuke. Gainera, ur edangarria ez da agortzen ez den iturri bat, gehiegikeriak egiten baditugu agortu egingo da. Eta zenbait lekutan garbi ikusten da uraren urritasunak desertifikaziora garamatzala...

Baina uraren zentzuzko erabilerak guk eta gure ondorengoek gure bizitza eta osasunaren iturri den baliabide honetaz gozatzeko aukera ematen lagundu dezake. Horregatik, iturria irekitzen duzuen bakoitzaren, gogoratu bakoitzaren erabilera kontsumo orokorraren parte dela, milioika pertsonaren kontsumoaren parte, hain zuzen; eta beraz, gutako bakoitzaren kontsumo aurrezki txiki batek ur edangarriaren litro ugari ez galtzea suposatzen dezake.

Tokiko Agenda 21aren lema dioen moduan: "Pentsatu globalki eta tokian-tokian ekin!"

Uraren erabilera etxeetan

Uraren kontsumoa pertsonako eta eguneko oso datu aldakorra da. ONUk ezartzen duen pertsonako eta urteko gutxienezko kopurua 30 metro kubiko dira (82 litro/pertsonako/eguneko). Europar uraren kontsumoaren batzbestekoa askoz ere altuagoa da, 150 litro/pertsonako/eguneko baita.

Hurrengo laukian zehazten dira etxeko kontsumoaren datuak pertsonako eta eguneko litrotan eta portzentaian.

ERABILERA	litro/pertsona/egunean	Portzentaia
Zisterna	38	19
Dutxa	65	32,5
Giza kontsumoa eta sukaldetako	7	3,5
Garbitasuna	10	5
Ontzi garbigailua	38	19
Arropa garbigailua	42	21
Guztira	200	100

Ur eskasiari aurre egiteko neurriak

Ur eskasiaren edota defizitaren aurrean badira hainbat irtenbide:

1. Araztegitik pasatako urak berrerabili.
2. Kontsumoa gutxitu ur aurrezki boluntarioaren bidez.
3. Uraren prezioetan aldaketak sartu kontsumo handiak zigortuz.
4. Lur azpiko baliabideen ustiaketa handitu.
5. Ur gaziaren desalinizaziorako zentroak erabili.

Kontsumo arduratsuen alde

Etxean ura aurrezteko hainbat jarduera:

- Arropa garbigailua beteta dagoenean jarri martxan.



Uraren Munduko Egunean Lemoako ludotekan eginiko marrazkiak.

- Eguzkiaren indarra oso handia ez denean ureztatu lorategia.
- Gorputzaren garbiketarako dutxa hartu bainuaren orde.
- Elektrogailuak erostera koan ur kontsumoa gogoran izan.
- Ontzi garbigailua beteta dagoenean erabili. Ontziak eskuz garbitzen baino ur gutxiago erabiltzen da garbigailuarekin.
- Platerak garbigailura sartu aurretik arraspaz garbitu eta ez urarekin.
- Ontziak garbitzerakoan eta ontzi edota platerrik azpian ez duzunean iturria itxi.
- Barazki eta frutak ontzi batean garbitu eta ez iturri irekiarekin.
- Ura berrerabili, esaterako, barazki eta frutak garbitzeko erabili duzun ura landareak ureztatzeko erabili.
- Baratza edota lorategian euri-ur jaso zeko sistemak jarri.
- Edateko behar duzun kantitatearekin bete edalontziak.
- Zure zisternaren barnean ur botila beteak sartu haren karga gutxitzeko eta erabiltzen den bakoitzean ura aurrezteko.
- Hortzak garbitzerakoan, ur basoa erabili.

Ura aurrezteko gailuak:

- Ura eta energia aurrezteko programadun arropa garbigailua.
- Deskargaren etengailua edota tekla bikoitzaren sistema zisternan.
- Ura eta energia aurrezteko programadun ontzi garbigailua.
- Ur etorria gutxitzeko burua dutzetan.
- Ur etorria gutxitzeko sistema iturrietan.



Arratiako biztanle bakoitzaren 10 litroko ur aurrezpenak (zisterna baten deskargaren neurria) urtean 45.625.000 litroko ur kopurua gordetzea sortuko luke!

GORBEIALDE Elkartearen hitzetan... Europako diru laguntza berriak 2007-2013 urteetan



Aurrerantzean jatorkiguzan urteetan Europatik jatorkiguz diru barriek, nahiz eta aurreko zazpi urteetan baino gutxiago izan, Euskadiko administrazioak (Foru Aldundiek eta Euzko Jaurlaritzak) ipiniko dauz ganetikoak.

Landa eremu edota baserri inguruko garapenak dirua behar dau. Inbertsio publikoak hiritan egitea ondo dago baina herri txikietan egiten dan gutzia ez da inoiz nahikoa izango zeren eta beti ekipamendu eta infrastrukturetan atzetik ibiliko garelako.

100 milioi euro inbertituko dira

Jatorkiguzan zazpi urteotan (2007-2013), aurtengoa barru, Euskadiko landa inguruan gitxi gora behera 100 milioi euro inbertitzeko asmoa dago. Inbertsio honek lau ataletan banatuta dagoz:

- Zatiirik haundiena (60 milioi) baserriko inbertsionarako izango dira, berez baserriak diru etorriak daukiezenentzako dira (hezkuntza proiektuak, baserriar gazteen proiektuak, esplotazioen barrikuntzak, elikagaien transformazio eta komertzializazio proiektuak, nekazaritza infrastrukturek...),
- beste 25 milioi laguntza zuzenentzako, basoetako kudeaketarako, parke naturalak ekintzetarako eta abar,
- eta azkenik 15 milioi euro aktibitate ekonomikoak dibertsifikatzeko, turismoaren bitartez, herrietako komer-

Orain ez dira izango herrien mugak zonifikazio hori jarriko daurienak, landa inguruak baino. Hori dala eta mapa barri bat izango dogu (oraindik egin barik dago)

tzioari bultzakada bat emoteko, entresa txikiak jatzeko eta landa inguru txukun mantentzeko.

Laugarren atal bat be badago Leader izenagaz, baina dotazio ekonomiko barik, filosofi legez aplikatuko dana aurreko beste hiru ataletan eta derrigorrez diru kopuru bat gestiona-tuko dauana.

Arratia-Nerbioi esparruan, Gorbeialdean

Bertako landa garapena programazio baten bitartez aplikatuko da. Urtero urteko gestio plan bat burutuko da eta bertan jasotako proiektuak lagunduko dira, bai proiektu publiko zein pribatuak.

Aldaketa inportante bat badaukagu zazpi urte honetarako, eta zonifikazioarena da. Orain arte Europako Batasunak herri batzuk deklaratu euki dauz landa ingurune moduan eta beste batzuk ez, hau da Arratiako herri batzuk (Bedia, Igorre eta Lemoa) zonifikazio honetik kanpo egon dira eta beste guztiak barru egon dira. Horren ondorio zuzena diru laguntzak jasotea edo ez jasotea izan da.

Orain alderantziz ez dira izango herrien mugak zonifikazio hori jarriko daurienak, landa inguruak baino. Hori dala eta mapa barri bat izango dogu (oraindik egin barik dago) zein lekutan proiektuak Europako diru laguntzak jaso ahal izango daurien edo ez. Barrien zain.